

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Peñacerrada-Urizaharreko udalerriko eraikinetan eguzki energia hartu eta aprobetxatzeko instalazioak arautzen dituen udal ordenantzaren hasierako onespena

Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren Osoko Bilkurak, 2026ko irailaren 15ean egindako ohiko bilkuran, hasierako onspena eman dio Peñacerrada-Urizaharreko udalerriko eraikinetan eguzki energia hartu eta aprobetxatzeko instalazioak arautzen dituen udal ordenantzari .

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, jendaurrean jartzen da iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hogeita hamar eguneko epea, interesdunek espedientea aztertu eta, hala badagokio, egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Erabaki hau behin betiko onartutzat joko da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada.

Denek jakin dezaten ematen da argitara.

Peñacerrada-Urizaharra, 2026ko irailaren 16a

Alkatea

ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ